

RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK


ELIKAGAIAK

2017ko URTEKO TXOSTENA

Alerta eta jakinarazpenen kopurua
Jakinarazpenen kategorizazioa
Antzemandako arriskuen jatorria
Antzemandako arriskuak
Azken urteen arteko konparazioa



ALERTA ETA JAKINARAZPENEN KOPURUA

2017an, Europako Alerta azkarra sistemaren (RASFF) bidez **3437 alerta eta jakinarazpen** jaso dira.



JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA



2017 urtean zehar, elikagaiei buruzko 3437 jakinarazpen izan dira. Horietatik, 870 **alertak** (%24) izan dira, 1081 **informazio-jakinazpenak** (%35) eta 1486 **mugan egin diren ukapenak** (%41).



ANTZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorriari dagokionez, urtean zehar, aipatu behar da **Europak (%37,5)** eta **Asiak (%33,5)** eragin dituztela jakinarazpen gehienak. Asia jatorria duten jakinarazpen kopurua jeitsi egin da 2016 urtearekin konparatuz, Europa eta Afrika mantendu egin dira. Amerikaren kasuan, %7a handitu da.



Urteko batezbestekoak hurrengoak izango lirateke:



ANTZEMANDAKO ARRISKUAK


Aurreko urtean bezalaxe, **kutsadura biologikoak** eragin ditu jakinarazpen gehien (%25). **Mikotoxinak** dira jakinarazpen gehien sortu dituzten bigarren taldea (%18,5), pasa den urtetik jeitsi direlarik. Hondakinen kopurua, metalena eta iruzurruea mantendu egin da.

Hauek dira antzemandako arriskuei dagozkien urteko neurriak eta lauhilekoka izan duten bilakaera:




.....ANTZEMANDAKO ARRISKUAK


KUTSADURA BIOLOGIKOaren kasuan, **Salmonella** nabarmendu behar dugu kutsadura biologikoen **%67a** eragin baitu, (%15^a handitu delarik). Honako hau izan da kutsadura biologikoek izan duten joera:



Badira Salmonella espezie batzuk giza osasunerako arriskutsuak direnak (*S.typhimurium* y *S.enteritidis*) eta bestelako Salmonellak, azken hauek, **Salmonella exotikoak**, nabarmendu behar dugularik (**%85,3**). **Oilaskoa** izan da protagonista nagusia. baita *S.enteritidis*aren kasuan ere (%70). Urteko eboluzioa izan da:




MIKOTOXINEN kasuan, kasu gehienak (**%80**) **Aflatoxinek** eragin dituzte, **kakahueteek** kutsadura kasuen **%38,5a** eragin dutelarik.




.... ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

PESTIZIDA ETA BOTIKEN HONDAKINEI dagokionez, urteko batez bestekoa kontutan hartuz, **pestizidek %81a** suposatu dute, **barazkiak %38a** suposatuz. Asia jatorria izanez kasu gehienetan (**%68,5**). **Botiken hondakinak (%19)** eta ez da produkturik nabarmendu besteengan.

Urteko eboluzioa hurrengo hau izan da:



Merkurioa jarraitzen du **metal astunen** protagonista izaten (**%64**), kasu gehienak **ezpatarrainak** eragin dituelarik, **%64,5a**. **España** jatorria izan da **%62,5eko** kasuetan.



AZKEN URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

Azken urteak alderatuz gero, jasotako alertak zein jakinarazpenak aldatutu egin dira urtetik urtera. Hainbat aldaketa izan dira azken urteotan: Iruzurrak igo dira, gehien bat debekatutako sustantziak erabiltzeagatik elikagai-osagarrietan eta etiketan aipatu beharreko alergenok ez aipatzeagatik. Mikotoxinek eragindako jakinarazpenak pasa den urtean igo ta gero, aurten jeitsi egin dira. Kutsadura fisikoa eta metal astunak mantendu egiten dira eta kutsadura biologikoa, 2013an izan zuen zenbaki berdinarara heldu da.

